

Euskararen Erakundea
2017/06 (BIS). Ebazpena

Leioako Udalbatzak, 2016ko urtarrilaren 28an izandako ohiko batzarraldian onartu zuen 2013-2017 urteetarako Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren moldaketan honako hau azaltzen du

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

Honen ildotik onartzen dut atxikitzen den EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO 2017ko DEIALDIAREN araudia, 5.000,00 eurokoa eta 33501/4810100 aurrekontu sailetik, *euskara sustatzeko diru-laguntzak* izenekotik, aterako dena

Leioako Euskararen Erakundearen presidentea, Arantxa Díaz de Jungitu Tudankak, horrela agindu eta izenpetu du Leioan, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hogeita hamarrean. Eta horretaz guztiaz, nik, Leioako Euskararen Erakundearen idazkaria, fede ematen dut

Arantxa Díaz de Jungitu Tudanka
Euskararen Erakundearen presidentea

Euskararen Erakundea:
Resolución 06/2017 (BIS)

En la adaptación del Plan Estratégico para la Promoción del Euskera 2013-2017 aprobado en sesión plenaria el 28 de enero de 2016 se recoge lo siguiente:

7.1. Reforzar la presencia y uso del euskera en las actividades de ocio

7.8. Fortalecer la presencia y utilización del euskera en las actividades del ámbito del deporte

A tal efecto apruebo las bases de la CONVOCATORIA 2017 DE SUBVENCIONES PARA LAS ACTIVIDADES DE FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA que se adjunta con 5.000,00 euros de dotación e imputable a la partida presupuestaria 33501/4810100 denominada *subvenciones para el fomento del euskera*.

Así lo mandó y firmó la presidenta de Leioako Euskararen Erakundea, Arantxa Díaz de Jungitu Tudanka, en Leioa, a treinta de enero de dos mil diecisiete, de todo lo cual, yo, la secretaria de Leioako Euskararen Erakundea, doy fe.

Bego Gutierrez Anton
Euskararen Erakundearen idazkaria

LEIOAKO EUSKARAREN UDAL ERAKUNDEA **EUSKARA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZETARAKO 2017ko DEIALDIA**

1. Diru-laguntzaren helburua.

Diru-laguntza hauen xedea da euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekintzak eta programak bultzatzea Leioan.

2. Onuradunak.

Aurreko atalean azaldutako jarduerak sustatzen edo egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira onuradunak.

Honakook izan beharko:

- Irabazteko asmorik gabeko Erakunde edo Elkarteak, legez eratuak, baldin eta egoitza Leioan badute, Leioako Udaletxeko Elkarte Erregistroan izen emanda badaude eta jarduerak batik bat Udalerrian egiten badituzte.
- Pertsona fisikoak, noizbehinkako ekimenez talde baten ordezkari partikularrak direnak, irabazteko asmorik gabe badihardute eta Udalerrian erroldatuta badaude.

Diru-laguntza arruntaren onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, edo bestelako batasun ekonomikoak edo ondare banatuak ere, baldin eta helbide soziala Leioan badute eta diru-laguntza emateko zio diren proiektu edo jarduerak egiteko gai badira.

Diru-laguntza hauetatik kanpo geratuko dira udalerriko ikastetxeetatik edo haien inguruetatik sortutako ekimenak.

3. Diruz lagunduko diren ekimenak.

Leioan euskararen erabilera sustatzea helburu nagusia duten ekintzak eta programak diruz lagunduko dira deialdi honen bitartez.

4. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentu eta informazioak.

Eskabideak aurkeztea:

Eskabidea, Erakunde autonomiadunaren lehendakariari zuzenduta, Leioako Udaletxeko Sarrera-erregistroan aurkeztuko da, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabilita. Horretarako epea **otsailaren 1etik martxoaren 1era** izango da. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskabidea aurkeztu duenaren NANaren fotokopia.
2. Erakundearen IFKren fotokopia, erakunde juridikoa bada.
3. Urtean egin beharreko jardueren proiektu xehatua. Proiektu horrek, gutxienez, jarduera horietako bakoitzaren azalpena bildu beharko du, baita zein bizilagun dituen xede, zein helburu lortu nahi den eta kalkulatu den aurrekontua ere.
4. Eskabidearen aurreko urtean erakunde eskatzaileak gauzatutako jardueri buruzko memoria. Memoria hori aurreko urtean jasotako urteroko diru-laguntzaren justifikazioan jada aurkeztuta badago, halaxe azaldu beharko da eskabidean.
5. Erakundeak duen bazkide-kopuruaren aitortpena.
6. Zerga-betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Ogasunak egindakoa. Zergak Leioako Udalari soilik ordaindu behar dizkioten elkarteek eskabidean erantsiko dute horixe azaltzen duen berriarazko aitortpena. Udalak berak ofizioz emango du aipatutako egiaztageria.
7. Eskatzaileak, indarrean dagoen legediaren arabera Gizarte Segurantzarekin behartze-harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du Gizarte Segurantzarekiko obligazio guztiak egunean dituela.
8. Honekin batera, beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan jarduera berbererako diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu bada, autonomiaduna den

Euskararen Erakundearen aurkezten den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, zenbat jaso den.

Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, autonomiaduna den Euskararen Erakundeak, kasu zehatz bakoitzari erreparaturaz, dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.

Eskatutako dokumentuak Erakunde Autonomiadunak edo Udalak berak bere esku badauzka, eskatzaileak dokumentuok ez aurkezteko eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren jarri beharko da.

Eskabideak Oinarri hauetan ezarrita dauden betekizun guztiak betetzen ez baditu, eskumena duen organoak akatsa zuzentzeko aginduko dio interesdunari. Horretarako, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta honako ohar hau egingo zaio: hori egin ezean, eskaera bertan behera utzitzat joko da, 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera eman ondoren.

Pertsona edo erakunde batek oraindik ere Udalak edo autonomiaduna den Euskararen Erakundeak emandako diru-laguntzei buruzko azalpen-memoria aurkeztu ez badu, edo diru-laguntza horiek dokumentu bidez justifikatu ez baditu, beraren eskabidea ez da kontuan hartuko.

Eskumena duen organoak diru-laguntzen gehienezko zenbateko osoa hainbanatuko du diru-laguntzen onuradunen artean.

Prozedura izapidetzea:

Instrukzio-organoa autonomiaduna den Euskararen Erakundearen Lehendakaritza izango da.

Honakoak dira prozedura izapidetzeko jarduerak:

- a) Ebazteko egokitzat jotzen diren txostenak eskatzea.
- b) Eskabideak ebaluatzea, baloratzeko irizpide, modu eta lehenetsun arabera. Horiek guztiak oinarri hauetan daude zehaztuta.

5. Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

Eskatzaileari dagokionez (gehienez 20 puntu)

- a) Proposamena egiten duen pertsonak edo erakundeak Leioa udalerrriaren giroan garrantzia duen edota errotuta dagoen (10 puntu).
- b) Eskatzaileak egiten duen jarduerak urteetan iraun duen (gehienez 10 puntu).

Egitarruari dagokionez (gehienez 80 puntu).

- a) Jarduera nori zuzendua dagoen. Umeak, gurasoak, gazteak eta euskaraz hitz egiteko gune bat bilatzen duten pertsonak izango dira lehenetsiko diren kolektiboak. (gehienez 30 puntu)
- b) Jardueraren parte hartzaileen aldetik euskararen erabilera aktiboak duen garrantziaren arabera (gehienez 50 puntu).

6. Bideratu eta ebatzea.

Euskara teknikariak instrukzioa egingo du eta eskabideen gaineko txostena bidaliko dio ebaluazioa egingo duen organo kolegiatuari.

Organo hori Diru-laguntzak Emateko Batzordea izango da, eta kide hauek dira osatuko dutenak:

- Lehendakaria: Euskararen Erakundearen lehendakaria.
- Batzordekide bat: Euskara Zerbitzuko burua den teknikaria.
- Beste batzordekide bat: Euskararen Erakundearen Kontseilu Artezkaritik lehendakariak izendatutako zinegotzi bat.
- Idazkaria: Euskararen Erakundearen parte den Euskara Zerbitzuko administrari laguntzailea edo administraria.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behin-betiko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Interesdunek aurkezten dituzten gertakariak, alegazioak eta frogak besterik ez da aintzat hartuko.

Behin-betiko ebazpen-proposamenean hauek bildu beharko dira:

- Diru-laguntza emateko proposatu diren eskatzaileen zerrenda.
- Diru-laguntzaren zenbateko zehatza.
- Ebaluazioaren nahiz berori egiteko irizpideen zehaztapena.

Ebazpena:

Autonomiaduna den Euskararen Erakundearen lehendakariak behin-betiko ebazpena ematea erabakiko du. Ebazpena arrazoitu egingo da eta, edonola ere, hartzen den ebazpenaren oinarriak ziurtatu beharko dira.

Ebazpenean azaldu beharko da diru-laguntza jasoko duen eskatzailea, edo jasoko dutenen zerrenda, eta gainontzeko eskabideen gaitzespena ere bai. Ebazteko eta jakinarazteko epea, gehien jota, sei hilabetekoa da, deialdia argitaratzen denean zenbatzen hasita.

Diru-laguntza emateko ebazpenarekin batera amaituko da administrazio bidea.

Gehieneko epea ebazpena jakinarazi gabe amaitzen bada, emakidaren eskabidea administrazio-isiltasunaren bidez gaitzetsizat jo beharko dute interesdunek.

Ebazpena udal web-gunean argitaratuko da

7. Aurrekontuko zuzkidura.

Euskara Zerbitzuak 2017ko ekitaldian 33501/4810100 Euskara sustatzeko diru-laguntzak partidatik 5.000 € erabiliko ditu diru laguntza hauek emateko.

8. Emakidarako prozedura.

Diru-laguntza hauek emateko prozedura norgehiagoka bidezkoa da.

9. Laguntza justifikatzea.

Onuradunak, diru-laguntza justifikatzeko, gastatutakoaren justifikazio-kontua aurkeztuko du behin diru-laguntza jaso duen aktibitatea amaituta. Horrez gain, 2018ko otsailaren 28 baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Garatutako aktibitatearen memoria zehaztua.
- b) Aktibitatearen diru-sarrera eta gastuen balantzea; diruz lagundu den aktibitateak jasotako beste edozein diru-laguntza edo laguntza publiko zein pribatu adierazi beharko da.
- c) Aktibitatearen eraginez sortutako gastuen egiaztagiriak, emandako zenbateko osoa bete arte. Egiaztagiri horiek fakturak edo merkataritza legeen trafikoan proba-balio berbera duten bestelako agiriak izan daitezke.
- d) Diruz lagundutako aktibitate edo ekitaldiaren testuinguruan editatu edo argitaratutako eskuorri, kartel, liburu, bideo, CD eta abarren ale bana eman. Horietan, Leioako Udala agertu beharko da diruz lagundutako aktibitatearen babesle bezala.

Aktibitatea beste edozein entitate publikok edo pribatuk kofinantzatu duen kasuetan, justifikazioaren parte bat izango da fondo horiek nondik datozen eta diruz lagundutako aktibitatean zertan aplikatu den egiaztatzea.

Justifikatzeko aurkezten den dokumentazio guztiak ekitaldi ekonomikoaren data eduki beharko du diru-laguntza eman ahal izateko.

10. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza ebatzi eta 30 eguneko epean ordainduko da.

11. Bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek deituta edo dei daitezkeen beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira, betiere jasotako diru-laguntza guztien batuketak ez badu aurkeztutako aurrekontua gainditzen. Egoera horretan, dagokion zenbatekoan gutxituko da deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

12. Onuradunen obligazioak

Deialdi honetako diru-laguntzen entitate onuradunek Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorrean xedatzen diren obligazioak bete beharko dituzte.

13. Eskaerak berregitea

Diru-laguntzaren xedea bada eskatzaileak garatu beharreko aktibitateak finantzatzea eta behin-behineko ebazpen proposamenean zehazten den diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran zehazten denaren azpitik badago, ebatzi baino lehen, zazpi eguneko epea irekiko da ondo deritzon onuradunak eskaera berriz egin dezan, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzara doitzeko.

Edozein kasutan ere, eskaera berregiten bada, diru-laguntzaren objektua, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, baita eskaeretakako ezarrita dauden balorazio irizpideak ere.

14. Diru-laguntza itzultzea

Jasotako laguntza Udal Diru-kutxara itzuli behar izatea gerta liteke, diru-laguntza ordaindu zenetik eta itzulketaren bidezotasuna erabaki bitarteko epeari legezkiokkeen atzerapen interesak barne, Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko 17. artikuluan ezartzen den kasuren bat gertatzen bada.

AZKEN XEDAPENA

Diru-laguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.

LEIOAKO EUSKARAREN UDAL ERAKUNDEA

CONVOCATORIA 2017 DE SUBVENCIONES PARA LAS ACTIVIDADES DE FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA

1. Finalidad de la subvención.

Las subvenciones que se regulan en las presentes bases tienen por objeto la promoción actividades y programas dirigidos al fomento del uso del euskera en Leioa

2. Beneficiarios.

Tendrá la consideración de beneficiario toda persona, física o jurídica, que promueva o realice la actividad descrita en el punto anterior.

Deberán ser:

- Entidades o asociaciones sin ánimo de lucro legalmente constituidas, con sede en Leioa, registradas en el Registro Municipal de Asociaciones de Leioa y que desarrollen sus actividades principalmente en el municipio.
- Personas físicas, en representación particular de un grupo por iniciativa de carácter esporádico, sin ánimo de lucro y empadronadas en el municipio.

Podrán asimismo acceder a la condición de beneficiarias de subvención ordinaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que tengan su domicilio social en Leioa y puedan llevar a cabo los proyectos o actividades que motiven la concesión de la subvención.

Quedan excluidas las iniciativas promovidas desde y en el entorno de los centros docentes del municipio.

3. Iniciativas subvencionables

Mediante esta convocatoria, se subvencionarán actividades y programas que tengan como objetivo principal promocionar el uso del euskera en Leioa.

4. Lugar, plazo de presentación de solicitudes y documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud.

Presentación de solicitudes:

La solicitud, dirigida al Sr. Presidente del organismo autónomo municipal Euskararen Erakundea, se presentará en el Registro de entrada del Ayuntamiento de Leioa por cualquiera de los medios señalados en el artículo 38 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. El plazo de presentación de solicitudes será desde el 1 febrero al 1 de marzo.

Junto con la solicitud deberán presentarse los siguientes documentos:

1. Fotocopia del DNI de quien presenta de la solicitud.
2. Fotocopia del CIF de la entidad, en caso de tratarse de una entidad jurídica.
3. Proyecto detallado de las actividades a desarrollar durante el año incluyendo, al menos, descripción de cada una de ellas, población a la que se dirige la actividad y objetivos que se persiguen, así como presupuesto estimado.
4. Memoria de las actividades realizadas por la entidad solicitante durante el año anterior a la solicitud. Para el caso de que dicha memoria se hubiera ya aportado como parte de la justificación de la subvención anual recibida en el año precedente, tal circunstancia se hará constar expresamente en la solicitud.
5. Declaración sobre el número de socios con que cuenta la entidad.
6. Certificado de la Hacienda Foral de Bizkaia, acreditativo de que el solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones fiscales. En el supuesto de Asociaciones cuya única obligación tributaria lo sea para con el Ayuntamiento de Leioa, incluirán en la solicitud declaración expresa en tal sentido, siendo el propio Ayuntamiento el que aporte de oficio el certificado mencionado.
7. Cuando el solicitante, de acuerdo con la legislación vigente, tuviera relación obligacional con la Seguridad Social, habrá de presentar certificado, emitido por la

Tesorería General de la Seguridad Social, acreditativo de estar al corriente de sus obligaciones para con la misma.

8. En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el organismo autónomo municipal de Leioa Euskararen Erakundea deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de las instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación y la cuantía solicitada o, en su caso, recibida.

Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, el organismo autónomo municipal de Leioa Euskararen Erakundea podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado. En el supuesto de que los documentos exigidos ya estuvieran en poder del organismo autónomo o del propio Ayuntamiento de Leioa, el solicitante, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, podrá hacer uso de su derecho a no presentarlo, haciendo constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o emitidos.

Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en estas Bases, el órgano competente requerirá al interesado para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992.

No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes formuladas por persona o entidad que tenga pendiente la presentación de memoria explicativa y/o justificación documental de subvenciones recibidas del Ayuntamiento de Leioa o del organismo autónomo Euskararen Erakundea en ocasiones anteriores.

El órgano competente procederá al prorrateo, entre los beneficiarios de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones.

Instrucción del procedimiento:

El órgano instructor será la Presidencia del organismo autónomo Euskararen Erakundea.

Las actividades de instrucción comprenderán las siguientes actividades:

1. Petición de cuantos informes se estimen necesarios para resolver.
2. Evaluación de las solicitudes o peticiones, efectuada conforme a los criterios, formas y prioridades de valoración, que se definen en las bases reguladoras.

5. Criterios para la asignación de subvenciones.

El Solicitante (máximo 20 puntos)

- a) Significado y/o arraigo en el entorno del municipio de Leioa, de la persona o entidad que formule la propuesta (10 puntos).
- b) La continuidad de la actividad desarrollada por el solicitante a través de los años, de modo que se concederá un punto por año (máximo 10 puntos).

Programa (máximo 80 puntos)

- a) A quién está dirigida la actividad. Los colectivos a los que se dará prioridad serán los siguientes: niños y niñas, padres y madres, juventud y personas que buscan espacios para poder comunicarse en euskera. (máximo 30 puntos).
- b) Importancia que tenga la el uso activo que del euskera hagan los participantes para el desarrollo de la actividad(máximo 50 puntos).

6. Tramitación y resolución.

Una vez el técnico de euskera haya evaluado las solicitudes, se remitirá el expediente al órgano colegiado que emitirá informes sobre las mismas.

Dicho órgano, que se denominará Comisión de Concesión de Subvenciones, estará formado por los siguientes miembros:

- Presidente: presidente del organismo autónomo municipal de Leioa Euskararen Erakundea.

- Vocal 1: técnico responsable del Servicio de Euskera.
- Vocal 2: concejal perteneciente al Consejo Rector de Euskararen Erakundea nombrado por el presidente de dicho organismo.
- Secretario/a: auxiliar o administrativo del Servicio de Euskera (servicio perteneciente a Euskararen Erakundea).

A la vista del expediente y del informe del órgano colegiado el órgano instructor formulará la propuesta de resolución definitiva debidamente motivada. No se van a tener en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados.

La propuesta de resolución definitiva deberá contener:

- La relación de solicitantes para los que se propone la concesión de la subvención.
- La cuantía específica de la subvención.
- Especificación de la evaluación y los criterios seguidos para efectuarla.

Resolución:

El Presidente del Organismo Autónomo acordará la resolución definitiva. La resolución se motivará y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte.

Deberá contener el solicitante o la relación de solicitantes a los que concede la subvención y la desestimación del resto de las solicitudes. El plazo máximo de resolución y notificación es de seis meses. El plazo se computará desde el momento en que se publique la convocatoria.

La resolución de la concesión de la subvención pondrá fin a la vía administrativa.

Con el vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, los entenderán desestimada la solicitud de la concesión por silencio administrativo.

En el «Boletín Oficial de Bizkaia» se publicará un extracto de la resolución indicando los lugares donde se encuentra expuesto su contenido íntegro.

7. Dotación presupuestaria.

Se destinará a la concesión de estas subvenciones la cantidad de 5.000 € incluida en la partida 33501/4810100 *Subvenciones para fomentar el euskera* correspondiente al presupuesto del Servicio de Euskera del ejercicio del año 2017

8. Procedimiento de concesión.

El procedimiento de concesión de las presentes subvenciones es el de concurrencia competitiva.

9. Justificación de la ayuda.

La justificación de la subvención por parte del beneficiario se realizará mediante la aportación de la cuenta justificativa del gasto realizado, una vez finalizada la actividad para cuya realización se concedió la ayuda, aportando antes del 28 de febrero de 2018 la siguiente documentación:

- a) Memoria detallada de la actividad desarrollada.
- b) Balance de ingresos y gastos originados por la actividad; se deberá incluir cualquier otra subvención o ayuda, pública o privada, recibida para la actividad subvencionada.
- c) Justificantes, de los gastos devengados como consecuencia de la actividad, hasta el montante total de la cuantía concedida. Tales justificantes consistirán en facturas u otros documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil.
- d) Aportación de un ejemplar de cada uno de los folletos, carteles, libros, vídeos, CD-Rom, etc. que se hayan editado o publicado con ocasión de la actividad o evento

subvencionados. En ellos deberá haberse incluido al Ayuntamiento de Leioa como patrocinador de la actividad subvencionada.

Cuando la actividad haya sido cofinanciada con otras ayudas o recursos por parte de cualquier otra entidad pública o privada, deberá acreditarse, como parte de la justificación, la procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

Toda la documentación justificativa presentada, habrá de estar fechada en el ejercicio económico para el que se conceda la subvención.

10. Pago de la subvención

El pago de las subvenciones se efectuará antes de 30 días tras la concesión de las mismas.

11. Compatibilidad

Estas subvenciones son compatibles con cualesquiera otras convocadas o que se convoquen siempre que del conjunto de las que se reciban por la actividad objeto de las mismas no se produzca sobre financiación respecto del presupuesto sobre el que han sido concedidas. Ante tal supuesto, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso del importe de la ayuda concedida en virtud de la presente convocatoria.

12. Obligaciones de los beneficiarios

Las entidades beneficiarias de las subvenciones objeto de la presente convocatoria deberán cumplir con las obligaciones establecidas en la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Regulatoras de las Subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa.

13. Reformulación de solicitudes.

Cuando la subvención tenga por objeto la financiación de actividades a desarrollar por el solicitante y el importe de la subvención de la propuesta de resolución provisional, sea inferior al que figura en la solicitud presentada, antes de dictar resolución, se procederá a la apertura de un plazo de siete días, para que, el beneficiario que así lo estime necesario, proceda a la reformulación de su solicitud, a fin de ajustar los compromisos y condiciones a la subvención otorgable.

En cualquier caso, la reformulación de solicitudes deberá respetar el objeto, condiciones y finalidad de la subvención, así como los criterios de valoración establecidos respecto de las solicitudes o peticiones.

14. Reintegro de la subvención

Procederá al reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos contemplados en el artículo 17 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa.

DISPOSICIÓN FINAL.

En lo no previsto en esta convocatoria de subvenciones será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Regulatoras de las Subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa.